

## OTO INDARTSUA

Oto patxada ederrean eguneroko aldizkaria dago. Bai ba, gaur jaia da-ta, atsedena pozgarriago. Andre Joxepa, barriz, urduria berez, geldi egon ezin. Ba dau ganbaran kutxa aundi bat traste zaarrez gaiñezka: umetxoa zanezko andrakoak be bai. Axe ekarri nai dau, olloak lez azterka aztarrikan ekiteko bere barruan:

—Aizu, senartxo, ganbarako kutxa zaarra ekarriko dautzazu? Egizu, maite orrek.

Otok berbarik be ez. Erantzunik be ez. Donosti eta Bilboko kopa-partidua irakurten diardu: Sarabiak orduantxe gola sartu Arkonadari. Eta, zelako gola...!

—Senartxo, jatsixu kutxatxua...

—Itzi egiztazu bakean.

\* \* \*

Aurrera biderik ez dagoela pentsaten dau Andre Joxepak; baiña, bat-batean argitxu bat biztu jako bere garunetan:

—Bai, jakiña, arro ibilten zara zu zeurelako indarrrik iñork ez daukalako... Perurenan beste ei zara... Zeu baiño makalago iñor bez auzo guztian... Itzak ederrak eta berba galantak, besterik ez. Kresalaren aparra baiño geiago, ez. Arrotasunez burua bete dozu...

—Arrua neu...!?

—Bai, arro utsa. Zeure indarrok joan zirian ikutara... Kutxatxo bat ganbaratik ona ekarteko be ez zara.

—Ez nazela? Berton ikusiko don.

Io dau ganbarara arin-aringa eta ba-dator, trenarena lako arnasegaz, traste zaarrez beteriko kutxa bizkarean dauala:

—Amen non diran neure indarrak, bizi-bizirik oraidiño eta gordiñik...!

\* \* \*

Andre Joxepa sukaldean barrezka, gizonak panparroi-iñusente batzuek besterik ez diralako.

ARRINDA'TAR ANES

### ZELAKOA ETE?

Gaur zeru zabalak illargiaren argira ba dirudi olaturik bako itxasoa. Eme-eme dabil aize zurien egoa ta ur izurretan dantzan izarren dizdira.

Ametsen egalean nagokio begira irakiten barruan arraunlari gogo. Emen naiz arima ta soin itxas-minak joa noiz joan aal izango urdinen andira.

Bere bits izurretan gura neuke nik leku izarrekin bat areatza barrien billa ta illargia esku bete kantuz koroitu.

Zelakoa ete dozu bestaldeko ertza misterioz beteko itxaso biribilla? Bake leguneko ala erauntsiz zorrotza?

A. BIDAGUREN

### EGUZKIA ETA IZARRAK

"Illunabarra...

Eguzkia asten da jetxitzen, jetxitzen...  
dizdizera ederrak  
zaizkala gutxitzen,  
diamantezko printzak  
zaizkanean galtzen,  
urrezko bola baten  
itxurak du artzen  
eta geldi-geldikan  
itxaspean sartzen..."

(Euskal abestia)

Malkoak dagizu  
joan dalako eguzki...?  
Malkoak begietan,  
izarrik ezin ikusi.

(R. Tagore)

"Zergaitik, zergaitik, zergaitik, zergaitik,  
zergaitik negar egin...  
Zeruan izarrak dagoz  
itxaso aldetik."

(Euskal abestia)

ARRINDA'TAR ANES